

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

7. batzarraren AKTA.

2018ko abenduaren 18a – 17:00 h

BERTARATUAK

Juan María Aburto (Bilboko Alkatea)
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia, presidenteordea)
Xabier Otxandiano (Garapen ekonomikoa, Merkataritza eta Enplegu zinegotzia)
Alba Fatuarte (EH-Bildu udal taldea)
Inés Ibáñez de Maeztu (PSE-PSOE udal taldea)
Jesús Sanz Salamanca (PP udal taldea)
Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria)
Mari Jose Arrieta (Euskara zuzendariordea)
Jokin Gorozika (Labayru Fundazioa)
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiak)
Xabier Monasterio (Kultura-eragilea, Zenbat gara elkarte)

EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE

Izaskun Llona (Bilboko udaleko prentsa bulegoa)
Nekane Alonso (Kultura zinegotzia)
Genar Andrinua (Athletic Club)
Andrés Urrutia (Euskaltzaindia)
Libe Agirre (Kazetaria, Bizkaia irratia)
Ainara Aretxabaleta (Uztarri elkarte)
Amaia Arenal (Udalberri udal taldea)
Aitor Elizegi (Bilbao Dendak)
Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasun zinegotzia)
Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia)
Jon Simón Gartzia (Eusko Jaurilaritza - Hezkuntza Saila)
Irene Diez Martin (Bilboko udaleko komunikazioa)

IDAZKARITZA TEKNIKOAK

Idoia Postigo (Bilbao Metropoli-30)
Lander Solozabal (Labayru Fundazioa)

Alkateak ongietorria eman die bertaratuei eta haien ahalegina eskertu du. *Hermes* aldizkariaren azaroko alea (zk.: 60) oparitu die: “Euskararen erabileraren gakoak” izenburupean kaleratu zena.

Horrez gain, karpeta batean banatu zaie bilerarako materiala. Honako dokumentuak dira:

- Alkatearen gutuna udal langileei *Euskaraldian* parte hartzera animatuz.
- Bilboko Udalaren adierazpen instituzionala *Euskaraldiaren* alde.
- Alkatearen gutuna bilerarako deia eginez.
- Gai-zerrenda.
- 2018ko ekainaren 14ko bileraren akta.
- “Bilbo *Euskaraldia*” aurkezpena.
- “Euskara atalen bilakaera (2015-2019)” aurkezpena.

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2018-06-14) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu egin da.**

2.- EUSKARALDIA 2018.

Koldo Narbaizak, Euskara eta Hezkuntzako zinegotziak, adierazi du Bilboko Udalak modu aktiboan hartu duela parte Euskaraldian eta, besteak beste, **irailaren 27an** egindako udalbatzarrean **talde politiko guztiek onartutako adierazpen instituzionala** ekarri du gogora.

Horrez gain, adierazi du Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak Iker Martinez de Lagos, topaguneko kidea, eta Julen Orbea, Bilboko Euskaraldiaren dinamizatzailea, gonbidatu dituela, bileran *Euskaraldiari* buruzko lehen **balorazioa** egin dezaten.

Bi kide hauek hartu dute hitza prestatutako azalpena egiteko. Hau da **aurkeztutakoaren laburpena:**

- *Euskaraldiak* izan dituen **ezaugarriak aipagarrienak:**
 - Ariketa sozial masibo eta arrakastatsua izan da (220.000 lagunek hartu dute parte Euskal Herri osoan).
 - Bide berri baten hasiera izan da: eragileen arteko elkarlana, inertziak astindu, eta erabilera ulermenean oinarritu.
 - Ilusioa sortu da, ikusgarria izan da, eta izan du eraginik.
- *Euskaraldia Bilbon:*

- Hiru helburu: euskara erdigunera ekarri, euskalgintza artikulatu eta euskalgintzaren eta erakundeen arteko elkarlana gauzatu.
- Datu batzuk: 17.306 lagunek hartu dute parte (10.523 *Ahobizi* —%61— eta 6.783 *Belarriprest* —%39—), 322 lagunek formazioa jaso dute, 22 formakuntza-saio, auzoetan 13 batzorde, 17 aurkezpen.
- Nolakoa izan da *Euskaraldiaren prozesua* Bilbon?
 - Talde eragilea sortu.
 - Auzoetako batzordeak martxan jarri.
 - Bestelako lan-taldeak sortu.
 - Udalarekin koordinazio etengabea.
- **Aurrera begirakoak:**
 - Abendurik otsailera, balorazio-fasea: ondorioak atera eta konpartitzeko.
 - Hiru erronka nagusi: euskaltzaleen sarea indartu, sektoreen arteko harremana landu, eta entitateen barruan ere lan egin.

Alkateak azpimarratu du pozgarria izan dela egindako **elkarlana**, eta bide horretatik jarraitu beharra dagoela.

Alba Fatuarteak, EH-Bildu taldeko zinegotziak, sindikatuek eta alderdi politikoek *Euskaraldiaren* alde egindako lana eta ahalegina baloratu ditu. Bestalde, ekimena lideratzeko alkateak egindako ahalegina aitortu egin du (azaroko udalbatzarra euskaraz egin zen).

3.- 2015-2019 LEGEGINTZALDIAREN GARAPENA EUSKARA ATALARI DAGOKIONEZ.

Alkateak adierazi du **Gobernu Planak 10 ardatz** dituela, eta horietako bat **(9.a) Bilbo Euskalduna** lortzea eta lantzea dela. Horretarako bi bide daude: udalerrinari begirako plana (ESEP) eta udal barruko plana (erabilera plana).

Koldo Narbaizak azaldu du zein izan den **Euskara atalaren garapena** 2015etik aurrera, giza baliabideei eta aurrekontuaren bilakaerari dagokienez. Batzordekideei banatutako aurkezpen dokumentuan jasota daude honi buruzko xehetasunak.

Ondoren, Mari Jose Arrietak, Euskara zuzendariordeak, azaldu du zein izan den **Euskara atalaren aktibitatea** 2015etik aurrera, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) ardatz hartuta.

- ESEP lan egiteko marko bat da, Eusko Jaurlaritzak proposatzen duena, eta Bilboko Udalak bere egoera eta helburuen arabera moldatu duena. Euskararen erabilera sustatzeko Udaletik bideratzen diren ekimen guztiak kokatzen dira bertan, bai barrura begirakoak (Erabilera Plana), baita kanpora begirakoak ere (Udalerrian egitekoak).
- Euskara Zuzendariordearen aktibitatea Udalaren Gobernu Planaren 9. ardatzak adierazten dituen helburuei begira dago eta ESEPen hiru helburu estrategikoetan oinarritzen da: lehen helburua, euskararen jabekuntza, bigarrena, euskararen erabilera eta hirugarrena, euskararen elikadura. Helburu guztiakin lan egiten da nahiko modu orekatuan eta hainbat neurri jarri dira abian egiten diren programei esker.
- Aurrekontuari erreparatuz gero, gasturik handiena 2. helburuan kokatzen da (erabileran), eta horren ostean 1. helburuak jasotzen du dirurik gehiena (jabekuntza). Bi horien atzetik daude elikadura eta zehar-lerroak, hurrenez hurren.
- Batzordekideei banatutako aurkezpen dokumentuan jasota daude helburuka egiten diren programei buruzko xehetasunak.

Euskara atalaren aktibitatearen beste puntu garrantzitsu bat da **Udalaren Erabilera Plana**. Mari Jose Arrietak azaldu du zeintzuk diren adosten dabilzan plan horren nondik-norakoak **2018-2022 epealdirako**:

- Aurreko planaren (2013-2017) ebaluazioa egin da, eta bertatik datu kuantitatiboak (EMEren adierazleak) eta kualitatiboak (galdetegia langileei, AMIA eta *focus group*) atera ziren.
- Ebaluazio horrek emandako datuetatik ondorio batzuk atera ziren, hurrengo planaren oinarri izango direnak. Labur bilduz:

- euskara gutxi erabiltzen da (ahoz eta idatziz)
- gaztelaniaz funtzionatzen da batez ere
- mugimendu gutxi dago euskararen erabileraren alde.

Horiek horrela, aldaketa baten beharra dago emaitza hobek eta iraunkorrak lortzeko, eta horretarako antolaketa-eredua aldatzea proposatzen da:

- plana udal barruan estrategikoa izateko
- egitura osoari eragiteko
- sail bakoitza bere erabakien erantzule izateko

Halaber, asmoa da hori dena Euskara Zuzendariordeak bideratzea.

Honenbestez, plangintzaldi berriari begira Euskara Zuzendariordeak 3 arlotan planteatu ditu bere **proposamenak**:

1. **Planaren helburuak**, zerbitzu hizkuntzari eta lan hizkuntzari dagokienez.
2. **Antolamendu-eredua**: Udal mailan Erabilera Plana indartu, erakunde osoari eragin, eta sailtako unitateetan hezurmamitu. Hori egin ahal izateko, sailetan eta udalean batzorde eta lantalde batzuk sortzea planteatzen da.
3. **Lanpostuen zerrenda (LPZ)**: lanpostuen derrigortasun data (DD) eta hizkuntza eskakizuna (HE) erabakitzeko irizpideak egokitzea

Euskara atalak 2015-2019an izan duen bilakaerari buruzko aurkezpenarekin amaitzeko, Jone Unzuetak, Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendariak, azaldu du zein izan den **Euskara Aholku Batzordearen sorrera eta garapena**.

Batzordea 2016ko otsailean sortu zen, eta urte bereko ekainean 3 azpibatzerdeak sortu ziren (hedabideak, euskaltegiak eta euskara-elkartek). Batzordearen araudia 2017ko ekainean onartu zen. Orain arte, batzorde orokorra 7 aldiz elkartu da, eta azpibatzerdeak 11 aldiz. Bilera horietan guztietan, besteak beste, lan hauek egin dira: diagnostiko eta bisio estrategiko orokorra eta esparruetakoa egin eta adostu, etorkizuneko ardatzak aztertu, eta ESEPen eta Erabilera Planen aurkezpenak egin.

4.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.

EH Bildu taldeko Alba Fatuarterek honako hauek komentatu ditu:

- Azpibatzerdeen lana garrantzitsutzat jo du eta Batzorde Orokorra horren jarraipena egitea komeni dela esan du. Jone Unzuetak eta Koldo Narbaizak esan diote hala egingo dela, azpibatzerdeekin bilera gehiago egiten denean.
- Honakoa aktan jasota gera dadila eskatu du: gaurko berria da: Arkaitz Zarraga herritarrari 900 euroko isuna jarri berri diote udaltzain bati euskaraz hitz egiteagatik. EH Bildu taldearen ustez, Zarragari Mozal Legea delakoa ezarri diote autoritatearen kontrako erasoagatik. EH Bilduk Zarragari babesa adierazten dio, herritarrek nahi duten hizkuntza ofizialean komunikatzeko eskubidea babesten duelako.

Azken adierazpenaren aurrean, alkateak adierazi du herritar horrekin gertatutakoak ez daukala zerikusirik hizkuntza eskubideen urraketarekin.

Beste galderarik egon ez denez, alkateak amaitutzat eman du bilera eta eskertu die parte hartu dutenei etorri izana.



Bilbon, 2018ko abenduaren 18an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA
Mari Jose Arrieta